
FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure balorezko proposamena garatu dezagun, hau bera, bezeroei helarazi diezagun, bezeroekiko harremanak mantentzen dituzagun eta diru-sarrerak sor ditzagun ezinbestekoa da baliabideak erabiltzea. Funtsezko baliabideak lau motatan sailka ditzakegu: **baliabide fisikoak, baliabide intelektuak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak.**

Baliabide fisikoei erreparatuz, gure produktua fabrikatzeko erabiliko ditugun baliabideak edota instalazioak osatzen dituzte. Makinaren diseinua guk sortuko dugu eta gure produktuak ere guk ekoiztuko ditugu. Horretarako beharrezko lehengaiak beste enpresa batzuei erosiko dizkiegu. Gure fabrika bertan produktu hau ekoiztuko dugu. Bestalde, produktu bukatuak supermerkatu, enpresa pribatu nahiz erakunde publiko jakin batzuei salduko dizkiegunez, ez dugu denda propiorik izango eta interneten bidez salduko ditugu. Hau guztia kontuan hartuta, gure baliabide fisikoak makinak almagatzeko biltegia, fabrika eta makinak interneten bidezko salmenta egiteko ordenagailuak izango lirateke. Herrietan produktuaren kanpainak egiteko erabiliko ditugun tresneria ere baliabide hauen barnean sartzen dira.

Baliabide intelektualei dagokionez, diseinuak sortzeko imajinazioa eta sormena, informatikari buruzko ezagutzak, gaur egungo gizarteari buruzko ezagutzak eta gure produktua merkaturatzea ahalbidetuko duen merkataritza trebezia izango dira. Gure produktuak patenteak eta egile-eskubideak edukiko ditu, beste enpresek gure ideia kopia ez dezaten. Gainera, baliabide hauen barnean, jabetza-ezagutza, elkarteak eta bezeroen datu-baseak egongo dira, eta guk informazio hau kudeatuko dugu.

Bestalde, **giza baliabideak** ere izango ditugu, izan ere guztiok egingo dugu lan enpresan eta bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta, bakoitzak lan-sektore batean lan egingo du. Maialen diseinua pentsatuz eta (Ainhoaren laguntzarekin) merkaturatzeaz arduratuko da, Lorena administratzaile lanetan arituko dira, eta Elena eta Ainhoa egungo informazioaz jabetzeaz eta webgunea kudeatzeaz arduratuko dira.

Amaitzeko, **finantza-baliabideak** ere kontuan izan behar ditugu. Enpresa guk sortuko dugunez, hasieran gure aurrezkiak izango dira baliabide hauek; baina aurrezkiekin enpresa sortzeko adina dirurik lortuko ez dugunez, bankuari epe luzeko mailegu bat eskatuko diogu.

Hainbat asoziazioei ere eskatuko diegu aportazioak egiteko. Esate baterako, ingurune hobeko baten alde eta eta gehiegizko zaborra gutxitzearen alde borrokatzen duten elkarteak gure proiektua erakargarri aurki dezakete (gure produktua kutsadura murriztu dezakeelako modu garbi batean, gehiago kutsatu gabe), eta ekonomikoki inbertitzeko eskatuko diegu.

Hasieran galerak izango ditugu, normala den moduan baina enpresa aurrera egitea eta garatzea espero dugunez, merkatuan ondo kokatzea eta gure negozio guztia antolatzea lortutako unean, bankuari mailegua itzuliko diogu, izan ere, etekin handia lortzea espero dugu.